

4.NAZIOARTEKO EKONOMIAREN ERAKUNTZA (1870-1913)

XIX. bigarren erdialdean, nazioarteko ekonomia integratu bat garatu zen, nazio industrializatuen menpekoa. Garai honetan gainera bigarren industrializazio bat eman zen, herrialde berriak sartuz prozezuan. Azken batean, inperialismoaren hedatzeak, herrialde garatu eta azpigaratuen mugak finkatuko zituen.

4.1.NAZIOARTEKO MERKATARITZA ETA EKONOMI HAZKUNDEA

Garai honetan, produkzioa baino gehiago, merkataritzaren areagopen bat eman zen: herrialdeak beste herrialdeetako manufaktura, lehengai eta elikagaiekiko mendekoago bihurtu ziren. Industri iraultzak produkzioa handitu eta merketu zuenez, produktu batzuk ezin zituen barne merkatuarengatik absorbituak izan, eta kanpo merkatuak kontsumitu behar zituen. Gainera, urte hauetan errenta per capitaren igoera bat eman zen, eta honen ondorioz, lehen luxuzko produktu kontsideratzen zirenak, orain kontsumo produktu normal bat bezala kontsideratzen ziren.

Beraz, garraio eta komunikabideetan emandako iraultza kontuan eduki behar dugu, merkataritza bidaien kostuak murriztu zituenak (trena, lurrun ontzia) baina baita ere telegrafo, irrati eta telefonoa bezalako komunikabide asmakuntzak.

Honek eta kapital premiaren hazkundeak merkataritzari bultzada bat eman zioten, produkzioaren gaintik kokatuz gainera. Merkataritza honen hazkundea herrialde garatu eta azpigaratuetan nabaritu zen, baina nabariago bigarrenengan, kasu askotan lehen aldiz sartzen zirelako nazioarteko merkataritza zirkuluetan. XIX. Mendean zehar, Europa izan zen bere nagusigoa nabari egin zuen lurraldea, baina AEBren geroz eta gehiagoko parte hartzearekin.

Merkatutako produktuetan aldaketak eman ziren. Europa, produktu manufakturatuen esportatzaile eta lehengai inportatzaile bilakatu zen, azpigaratuetan kontrakoa gertatuz. Lehengaien artean, produktuen bolumena handitu bazen ere, nekazaritza arlokoek garrantzia galdu zuten, meategaien kontra. Bestalde, Kanada edo AEBko herrialde garatuetan, produktu manufakturatuen esportazioak garrantzitsua izaten jarraitu bazuen, hala ere egin zuen lehengaienak. Beraz, herrialde batzuk kanpo merkatura joaten ziren bitartean energia iturri eta elikagaien bila, beste batzuek horien esportazioan oinarritu ziren.

Merkataritza hazkunde hau libreganbismoa garatu zen garai batean eman zen. Salgaien trukea handitzearen ondorioz (XIX. Erdialdean batez ere), ez da harrizkoa sistema ekonomiko honen nagusigoa. Iada 1786tik aurrera, lege librekanbistak hasi ziren ateratzen Britainia Handian, baina ez zen nagusitu 1846an emandako Aileen legeen aboliziora arte.

Nahiz eta herrialde guztiek ez jarraitu guztiz sistema libreganbista, bai hartu ziren Europa osoan zehar honen aldeko posturak: Zollvereinaren ezarpena, Rhin, Elba, Po eta beste ibaietan libre zirkulazioaren ezarpena, Austria eta Hungariako aduanen deuseztapena...

Mugimendu honek giro aproposa eman zion nazioarteko merkataritzari, baina zenbait adituek azpimarratzen dute faktore nagusia, garraioan jasandako iraultza izan zen.

1873an depresio handia emango zen, 1890raino iraungo zuena. Bere sorrera Vienako burtsaren krackean zeukan, handik Alemaniara igaroko zena, honek ondorioz bankarrotak ekarriko zituenak, adibidez, siderurgia arloan, eta Estatu Batuetan, trenbide konpainiak porrota jasan egin zuten.

Krisiaren beste osagai bat nekazaritza krisia daukagu: bere sorrera, Europara garraio iraultzak, kanpotik zetozten produktuak geroz eta gehiago merketu zituen, eta hauen inportazioen igoerak konpetentzia handitu zien Europako nekazariari, oraindik gehiago handitu zirenak tradizionalki babesten zizkien mugak murriztu edo ezabatzean. Honek emigrazioa bultzatu zuen hiri eta itsasoz harandiko lurraldeetara. Emigrazioaz gain beste erantzun batzuk izan zituen, hala nola inportazioetatik kanpo zeuden produktuen espezializazioa, abeltzaintzaren igoera eta europar laboreak babesteko muga-sarien igoera, HOTS, protekzionismoaren areagotzea.

Beraz, zentzu handi batean, hori izan zen krisiarekiko erantzuna: protekzionismoaren igoera bat, muga-sarien medio. Baina Depresio Handia eta nekazaritzaren krisiaz aparte, uste da badaudela ere bestelako arrazoiak neurri hauekiko, hala nola eremu batzuetan industriari eman nahi zitzaion bultzada, edo herrialde askok jasan zuten nazionalismoaren igoera.

Uhin protekzionista honetan sartu ez ziren herrialdeak Holanda, Danimarka eta Britainia Handia izan ziren.

Dena den, protekzionismoak ez zuen merkatuaren garapena murriztu, ekonomia industrialaren igoerak eta honek zekarren lehengai kontsumoen igoerak lehundu egin bait zuen

Krisiak Britaniarren lehentasunari kalte egin zion zentzu handi batean, Alemaniak eta AEBk lehentasun industrialak bermatzen zuten bitartean: protekzionismoak, nazioarteko inbertsioak handitzera eramaten zuten, askotan kanpoan sukurtsalak edo filialak eratuz eta naziorako industri hazkunderako aukerak handituz (lehen multinazionalak hitz egin dezakegu).

Dena dela, XIX. Bukaeran eta XX. Hasieran, libre merkatuaren ideologia nagusitu zen, zenbait arau protekzionista salbu.

XIX. Mendeko merkataritza askearen apostua, garaiko hazkundearen ondorio bezala hartu izan da, eta neoliberalak eredu bezala jartzen dute gaur egun hazkunde onean dauden herrientzat, baina badaude honi ere kritikak Ha Joon Chanen ustez, azken batean, Britainia Handiak Aleen Legeen indargabetzearen ondoren, mundu merkatua, merkatu librean barneratzea behartu zuen, baita ere garai horretan "Independenteak" ziren herrialdean: Siam, Inperio Otomandarra....etab. Baina AEB salbuespen bezala. Ahala ere, autoreak dioenez, AEB garai horretan mundu mailako merkatuaren zati txiki bat zen oraindik.

4.2. FAKTOREEN NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

Munduan zehar erraztasun handiagoz produktuak mugitzeko faktoreetako bat lan-eskua izan zen: herrialde barruan eta hauen artean jasandako migrazio mugimenduak, zein Trantsizio Demografikoarekin lotua zegoen eta ekarri zuen demografia ez tandarekin. Gainera migrazioak gaur baino muga txikiagoak zituen, esku zabalekin hartuz askotan zeuden lur hustuak betetzeko. Gainera gobernuek diru laguntzak eta erreztasunak ematen zien, baina garraioaren merketzeak gehiago lagundu zuen migrazioa bultzatzen. Honen helburua, esklabo komertzioak utzitako hutsuneak betetzea izan zen adibidez. XIX. Mendean zehar IWWarte, 46M pertsonak inmigratu zutela kalkulatu da. Britainia Handiak ere, etxe eta langabeakoak kanporatzeko ere sustatu zuen politika, 1815tik 1840ra, 15M pertsona emigratuz. Mende bukaeran, Mediterraneora eta eslabiar herrietara zabaldu zen mugimendua, morroitzaz ezabatu zenez, beraien industriak jasan ez zituzten langileak joen egin zirelako.

Jendeaz aparte, kapitalen irteerak gorantzko mugimendua izan zuen 1840tik IWWarte, kanpoaldean egindako zuzeneko diru-zorro inbertsioetan batez ere. Pertsona eta kapitalen irteeren hipotesiak gauzatu ziren (Leninnek adibidez 1917an), baina gutxitan gauzatu da horien loturaren hipotesia. Aha ere, hurrengo esanenez horri buruz: Industria iraultzak, diru sarrera izugarria ekarri zuen, baina ez zuen diru-sarrera banatuen masa handitzea ekarri, baizik eta mozkinen hazkundera eta kapitalaren zentralizazioa. Izatez, garai honetan sortu ziren industria eta finantza talde handiak, nazioarteko joera hartu zutena (Siemens, Nestle, Ericsson, Kodak...)

Mozkinen kontzentrazioak, barne merkatua murriztu zuen, eta honek, kanpo merkatuen bilaketa. Ahala ere, ez zien Afrika edo Asiak eman exportazio merkatu handiena, Ipar Amerikak eta Britainia Handiaren dominiosak baizik.

Kapitalaren exportazioa, beraz, barne kapitalaren kontzentrazioaren ondorio daukagu, eta exportazio hauek, errentagari bihurtu ziren inmigrazioak sortutako merkatuengatik. Garai honetan ere, artisau eta nekazari pobreak, proletario auzoetan jarriko ziren, higie gutxiko eremu eta krisiek sortutako langabezia eremuetan egongo zirenak. Testuinguru honetan, hasiko ziren sortzen lehen langile mugimenduak, eta hauek mugak zeharkatzen hasiko ziren migrazio mugimenduekin. XIX. Mendeko lehen erdialdean, mugimendu ludditen ondoren,

lehenengo elkarte eta sindikatuak sortuko ziren, batez ere langile espezializatuen artean. Borroka ugari ekarri zituen 1830 eta 1848ko iraultzek, eta honetatik aterata, langile klaserako ideologiak finkatu ziren, hala nola anarkismo eta sozialismoa, azken hau marxismoarengatik edango zuena. Ideologia horien antolaketa zabaltzeko, Lehenengo Internazionala sortu zen 1864, eta honekin batetra, lehenengo langile partiduak eta sindikatu orokorrak.

Teknologia berrien hedapena, industrializazioaren zabalkuntzaren faktore izan zen ere. Garraio arloko bilakaerek eta finantza erakundeen garapenak teknologien hedapena posible egin zuten. Hezkuntzaren hedapena, II. Industri iraultza zabaltzeko funtsezkoa izan zen.

Difusiorako oztopoak egon ziren: I. Industri iraultza leku batzuetan mende bat beranduago helduko zen, Britania Handiaren prohibizioen bitartez, teknikari espezializatuak haurkitzeko zailtasuna, inbertsio kapitala lortzeko zailtasuna... atzeratu egin zuten hedapena, baina ez guztiz trabatu.

Mendeko azken laurdenean gertatzen den kapital eta pertsona mugimenduak erraztu egingo zuen teknologiaren hedapen bera, kapitalak teknologiaren inportazioa bermatzen zuelako, eta emigrazioak makinekin lan egiteko ohitua zegoen jendea. Prosezu honetatik kolonia ohiek atera zuten onura handena, eta ez ustiapen koloniek. Edonola ez da faktore bakarra: estatuak emandako laguntzak edo hezkuntza mailek asko lagundu zuten teknologien hedapen edo oztopotzean.

Edozela, kapitalak ere bere mugikortasuna biziki azkartu zuen XIX. Mendearen, Napoleon Guden ondoren eta 1850tik haurrera, nazioarteko inbertsioen urrezko garaia izan zen 1870-1914. Kapitala ugaria zen lekuetatik urria zen lekuetara eramaten zen, honela ekonomia industri berriei baliabideak emateko (elikagai, lehengaiak...). Transferentzia horien faktoreen prezio mailan daude oinarrituta: herrialde batek beste bateko aktiboak erostean, kapital mugimenduak gertatzen dira, epe luzeko ikuspegi batekin. Hau gauzatzeko era asko daude (negozio edo estatuaren baloreen erosketa edo kanpoan inbertitzea, lantegi bat muntatuz: horri inbertsio zuzena deritza). Herrialde guztiak inbertzioak atzerrian egin, edo hauek jaso, neurri berdinean egiten ez dutenez, batzuek inbertsio exportatzaile eta beste batzuen inportatzaile bilakatzen dira. Britainia Handi zen exportatzaile nagusia, bere mailak errenta nazionalaren %7rarte helduz gerraurrean. Frantziak ere, Europako periferi-erdi periferiko herrietara bideratu zuen kapitala. 1870-80tik haurrera, AEB eta Alemania gehitu zitzaizkien, eta baita ere Holanda, Belgika eta Suitza zentzu txikiago batean.

Kapital inportatzaile nagusiak, Europako herriak izan ziren, trenbide-sareak eraiki behar zirenean, baina denborarekin euren kapital propioa eratzeko gai izan ziren. Latinoamerikan Argentina Brasil eta Mexikok erakarri zuten kapital gehiena. Asian India, Sri Lanka, Txina eta Japon. Afrikan Hego Afrikako Batasuna (Afrikarako kapital inportazioen %60a bideratu zuen) eta Egipto izan ziren nagusienak.

Bankaren garapenak asko lagundu zuen inbertsioak gauzatzekotan: transferentziak erraztu eta herrietako aurrezkiak biltzen zituen, horrela inbertsioak gauzatu. Inbertsio hauek industrien hornikuntza eta zentzu txiki batean herrialde horiek merkatu bezala garatzea zuten helburu.

Hiru inbertsio esparru nagusi zeuden: gobernuaren zor publikoa (bonoak, askotan inproduktiboki erabiliak gastu militarrean), garraio-arloa (trenbidea adibidez, merkatu berriak zabaltzeko, eta baita ere portuak) eta meatzaritza (inbertsio zuzenen bitartez). Nekazaritza inbertsioak, nahiz eta gutxiago izan, garrantzitsuak izan ziren Australia eta Latinoamerikan..

Ondorioak ez ziren berdinak denontzan: mailegu-emaleentzat jarduera arriskutsua zen, ordainketa-etenduraren posibilitatea zegoelako, baina orokorrean emaitzak positiboak izan ziren. 2. sektoreko inbertsioak garrantzitsuak izan ziren industri garapenerako, teknologia inportazioa ahalbideratu zuelako. Exportazioan oinarritutako industri inbertsioak, ordez, industrializaziorantzko arrastre efektuak txikiagoak izan ziren.

Jaques Addak kapital inbertsio hauek periferi eta erdi-periferian izan zituen eraginak aztertu zituen: Britaniar dominiosak gainera, lau gunek bereganatu zituzten inbertsio eta maileguen zati handi bat: Latino Amerika, Errusiar inperioa, Inperio Otomanoa eta Txina. Industria garapen abiapuntuan zeuden lau lurralde ziren, boteretsu bihurtu zitezkeenak eta mundu-ekonomia kapitalistaren menpe geratu zirenak: atzerriko dirua ez zen erabili diru-metaketa sistema bat hedatzeko, azpiegiturak egiteko baizik, horrela nekazaritza eta meatzaritzako lehengaiak zentzura eramateko.

Argi geratzen da nola Estatu Batuetako inbertsioekiko desberdintasuna: barne garaioetan inbertitu zen, herrialdearen garapena bultzatu zutenak, industriaren azpiegitura eraikitzeko erabili zena, gion aipatutako inbertsioak, mundu-mailako merkatura bideratutako ekoizpenaren menpekotasuna indartu zuen bitartean.

Gune hauek bereizten ditu semiperiferiak: XIX. Mendean, politikoki burujabeak ziren, baina bertako ekonomia, zentruko finantzen menpekotasunean geratu zen, beraiek ez zirelako gai inbertsioak haurra ateratzeko. Inbertsio hauek kontrolatzeko zor kuxak sortu ziren, europear funtzionarioek kudeatua zegoena.

Periferiak, bitartean, ez ziren inbertsio merkatuak bilakatu, eta zentroa lehengai ez hornitzeko erabiltzen ziren, beraien industrializazio ahalmena minimoa bilakatzen da, semiperiferiak zentruari jarraitzen saiatzen den bitartean estatu aparatu eraginkorrak osatuz edo enpresario-klase nazional bat sustatuz.

4.3. URRE PATROIA

Urre patroia, nazioarteko salgai eta kapital elkartrukeak kontrolatu eta arautzeko erabili zen, Britania Handia erdigune bezala zuelarik. Sistemare egonkortasunak, nazioarteko merkataritza garatu zuen faktoretako bat izan zen.

1850 inguruan hasi zen finkatzen, eta 1875tik 1900 artean orokortu zen. Sistemak zioenez, herrialde ezberdinen txanponen artean truke tasa finko bat zegoen,urrearen balioan oinarritutakoak, zeinek herrialde bakoitzeko barne prezioari egokitu behar ziren. Britaina Handiak, potentzia mundial bezala, nazioarteko merkataritza eta finantzaren orekatzaile izan zen, berak zuen burtsa-merkatu biziena, aseguru eskaintza handiena...

Britania handiaren nagusigoagatik, libra esterlina txanpon sendo eta onartuena bilakatu zen, eta erreagatik aldatu ahal zen. Faktoreak: 1-dirua urre pisu bati lotua zegoen,2-banku zentralako urrearen eta zirkulazioan zegoen diruaren arteko harreman bat egon behar zen (urre gordailuak handitzen badira, bankuak bileteak inprimatu beharko lituzke, eta hauek jaisten baziren, billeteak merkatutik erretiratu), 3-beste metal txanponak urrearen menpe zeuden,4-txanponak urre barra bihurtzeko eztopo eza, 5-urre exportazio/inportazioari ezin zitzaizkion oztoporik jarri.

1780Tik haurrera patroia bimetalikoan zeuden herrialdeek jasandako desorekagatik prezioetan, urre patroian sartzen dira.

Teorian, honela funtzionatzen zuen sistemak: banku zentralaren interes nagusia, nazio bakoitzeko txanponak, urre pisuarekiko harreman finkoa mantentzea zen, eta bide batez, banku zentrala saiatu behar zen erreserbak bizkorki jaitsi edo igotzen. Defizit eta superabitaren pagamendu balantzak urrearekin ordaintzen zirenez, suposatzen da naturalki orekatzen zela.

Beraz, nazio batek balantza defizitarioa bazeukan, urrea atera beharko zuen handik, honek barne prezioak jaitsiaraziz (zirkulazioan dagoen dirua jaisten bada, deflazioa agertzen delako). Banku zentralak, laguntza eman behar zion, interes tasak igoz, diru zirkulazioa murriztu eta ekonomia konpetitiboagoa bilakatzeko (produktuen prezioak jaitsiz). Honela, produktu gehaigo saltzen hasiko ziren, eta urrea galdu beharrean, berriz jasotzen hasiko ziren (superabita lortu arte).

Merkatuan superabita zeukatenek urrea jasotzen zuten, beraien prezioak igoz bankuan bilete gehiago emititzen dituelako. Errialde hauetan, banku zentralak interes tasak jaizten zituen, diru-zirkulazioa areagotuz, prosezua betez: prezioak igoko ziren, produktu gutxiago salduz eta balantza defizitarioa lortuz.

Suposatzen zen sistema hau ona zela kapitalen mugikortasunerako, egonkortasuna eskaintzen zuelako: truke tasak ez ziren aldatzen eta elkartrukeetan segurtasuna eskaintzen zuten, oreka hau, prezio eta interes tasen fluktuazioen bidez mantenduz. Faktore honek, Keynesek zioenaren arabera, enplegu betea ezinezko bihurtzen zuen: urre patrioiak kanpo-egonkortasuna defendatzen zuten, barne egoeraren kaltetan (herri defizitarioetako interes igoerak enpresei inbertsioa murrizten zien, honela langabezia erakarriz). Liberalek ziotenez, urre sarrera arin itzuliko zela defendatzen zuten, zikloaren teoria arabera, kompetibitatea igoko zelako, baina Keynesi krisi garaiko ziklo beherakorraren luzatzeaz zegoen arduratua.

Orainarte deskribatutako urre patrioiaren funtzionamendua teorikoa da, eta zaantzak daude sistemaren funtzionamendu erregularrari buruz. Adbibidez,urreaz gain banku zentralek, erreserba-dibisak erabili zituzte bai nazioarteko ordainketen balantza orekatzeko, baita gordailu bezala (Libra esternala gehien bat bere finkotasunagatik). Horregatik, XIX. Mende bukaera eta XX. Mende hasierako merkatal hazkundea, billete eta kredituen hazkundeari atxikit behar zaio ere.

Beste aldetik, sistemaren funtzionamendu teorikoa zalantzan jartzen da, frogatu delako banku zentralek ez zituztela beti betetzen jokoaren arauak (batez ere superabit zikloan): interes tasak jaitsi ordez, hauek igotzen zituzten, urre sarreraren efektuak baretuz.

4.4. IMPERIALISMO ETA KOLONIALISMOA

Industrializazioa herrialde batzuetara mugatu zen, inperialismoaren ondorioz. Izaten, merkatuaren lotura eman zen une berean gauzatu zen AEBren "Mendebaldeko konkista", Europako sarrera Txinako portuetan guden ondorioz, etab: superproduktzioaren ondorioz, merkatu berriak behar ziren, bai lehengai merkeak lortu edo manufakturak saltzeko. Inperialismoak inperio baten hedapena sortu zuen, merkataritza eta industria-hedapenaren ondorioz..

Ezin da albo batera utzi estatuen arteko lehia politikoa: Errusiaren zabalkuntzak, Punjabko mugetaraino, Ingelesak Indiako iparraldea konkistatzera eraman zuten. Metropolitik kolonietara joandako kolonoek ezarritako presioaren ondorioz (hazkunde maila mantentzeko) hedatu zen inperialismoa, hauek indigenekin gudan sartzen zirelako, eta mugak segurtatzeko, metropoliaren interbentzioa behar zelako. Ahala ere, motibazio nagusia ekonomikoa izan zen.

XIX. Mendeko inperialismoaren garaikurra Afrikako banaketa izan zen, 1885ean, Berlingo konferentzian. Baina badaude konkista zuzenik gabeko kasuak ere: AEBk Ertamerikan ezarritako "Konpainia bananeroak" eta Kuban ezarritako kontrola 1898an...

Zer ematen zien koloniek herriale industrializatuei? 1-lehengai eta energia iturri merkea, 2-merkatu handiago edo txikiago bat europar produktuentzat, stocka murrizteko aproposa zena, 3-lan esku iturri bat (zentzu txikiago batean)

Jaques Addaren hitzetan Inperialismoak, besteak beste, periferizazio prozesua bultzatu zuen, eta prozesu hau ezin daiteke harreman militarretatik bereizi, hauek finkatzen dutelako zentro eta periferiaren arteko truke baldintzak, nondik zentrukoak onuragarri ateratzen diren.

XVI.tik aurrera, Latino Amerika izan zen europar mundu ekonomia zirkuluan integratu zena (konkista bitartez hain zuzen ere), eta nahiz eta XIX. Mendean independentzia politikoa lortu, ekonomikoki independentzia mugatua zuen. Ehungintzan industrializazio ahaeginak egin harren, meatzari esportatzaile eta manufakturen inportatzaile izaten jarraitu zuen.

Afrika aldiz, XIX. Menderarte ez zen europar ekonomian txertatu. Europarren lehen mendebal eta ekialdeko kostan, merkataritza postuak jarri zituen, barrura sartzeko ahaleginik gabe, eta esklabo eta errearen lorpena zuen helburu XVI. Mendetik aurrera Afrikan. XIXko bigarren erdirarte ez zirudien hori aldatuko zenik, baina merkatu beltza murrizten joan zen bitartean (ilegalizazioak medio), tratuzko ekonomiak hartu zuen lekua: lekuko lan-indarra, sorlekuan lanean jartzea dauka helburu. Honela manufakturak ez ziren esklaboengatik trukutzen, tropikoko gaien truk (kakao, kakahuetea...), zeinek eskari handiagoa zuten.

Europarrek, inbertsioen bidez, ekoizpena zeharka kontrolatzen zuten. Hegoafrikaren kasua bestelakoa da, klima europearra izanda. 1876an, diamante-mehatoki handienak haurkitu ziren. Aurkikuntza honek, migrazio-oldeak eta industrializazio saioak bultzatuko zituen, bertako afrikar explotazioan oinarrituz (apartheid).

Magreb inguruak, aldiz, Antzinarotik zituen loturak Europakin, eta aldika joan zen sartzen Europar ekonomian: Frantziak Aljeria kolonizatu, eta aldi berean merkataritza itunak sinatu zuten, trukeen gaineko monopolioa ezabatu eta mugasariak jaitziz. Ingalaterrak ere, Otomandarren kontsezioen bitartez (muga sariak %5era jaitzi ziren) lur jota utzi zuten bertako industria. Egiptok aldiz, aurre egin zion. Herria modernizatu eta politika expansionista bideratu zuen. hala ere, ez zuen periferizazio prozesua eten: koton exportazioan oinarritu zen, eta Frantziarren ekimenez, Suezko ubidea zabaldu zen, Egipto gune estrategiko bilakatu.

Ekialde Hurbilean, petroleoa zen nahi nagusi: Mundu musulmanean, europar merkaturako sarrera aldi berean egin zen, ekoizpena europear premieibegira jarritz. Azpiegitura garrantzitsuak egin zituzten, eta estatuak finantza-mendekotasunean jarri ziren.

Asia ordea, Europarekin aldera zitekeen bizi maila eta antolamendu politikoagatik. Salbuespenak arren (India, Java, Filipinak). Europarrek ez zuten, efektu handirik izan, eta XVIII. Mendean oparotasun eta zenbaitetan hedapen prozesuan zeuden.

Hori XIX. Mendean aldatu zen, Europako indar militar eta industria aurrerapenen ondorioz. Produktuentza merkatu berri bila, Ingalaterrak Indiarekiko menpekotasuna erabili zuen, indiar ehungintzaren hondamena ekarriz: exportatzaile izatetik inportatzaile izatera pasa zen, exportaziozko laboreen garapena sustatzen zuelarik (opio, te, kafe...) bere produktuen salmentak finantzatzeko.

XIX. Mendean, Indiar opioa Txinara exportatzen hastean, Opiaren lehenengo guda sortu zen, Ingelesek irabazia 1842an. Nankingo itunak, atzerriko merkatuari portuak zabaldu zizkion, mugasariak %5era jaitzi eta Hong Kong ingelesez esku utzi zuen. Frantziar expeditzioak, Tianjingoko ituna ekarri zuten, kontsezioak emanez eta Txinaren subiranotasuna murriztuz. Birmania, Siam, Vietnam etab.-k, indarrez zabaldu zuten beraien merkatuak ere, eta askotan itun desorekatuen ondoren anexionatu.

4.5 BIGARREN IRAULTZA TEKNOLOGIKOAREN GARAIA

Britainia Handia industria-nazio garrantzitsuena zen, bertan eratu zelako lehenik iraultza, eta ondorioz, lehen kapitalismoa. Merkataritza eta garraio mailan nagusitasuna lortu zuen, eta bere botere militarren ondorioz, munduko inperio handiena bereganatu zuen. Baina ez zuen merkataritza balantza orekatua izan, 1860 arte defizitarioa zena. Barne merkatua estu geratu zen, eta ondasunak exportaziora bideratu zituen Napoleon Guden

ondoren, eta bertako kapitalistek mundu osoan inbertitu zuten, batez ere trenbide eraikuntz eta meatzaritzan.

XX.menderako baina nagusigoa galdu zuen, AEB eta Alemaniaren alde. Arrazoiak: Bigarren Industri iraultzako asmakuntza gehienak, han eman ziren, baina garapena, sakonagoa izan zen lehiakideetan. 1870tik aurrera nabarmendu zen II. Iraultzak, paradigma aldaketa bat zekarren: altzairuaren garrantzia nagusitu egingo zen, bere ekoizpen merkearekin bat, burdina ordezkatzeko joango zena. Bessemer prozedura garrantzitsua izango zen eraldaketa honetan, produkzio kostua %90ean murriztuz. Siemens-Martin eta Gilchrist-Thomasekin batera, beraien asmakuntzek "altzairuaren iraultza" hedatuko zuten.

Industria kimikoaren agerpena izan zen beste protagonista bat. Alor askotara zabaldu en, eta elektrizitatearekin bat, adar berriak sortu zituen. Honela, II. Iraultza, zientziari lotuago egongo zen I. baino, ongari inorganikoen asmakuntzarekin, baina baita ere azido sufurikoaren aldetik etab.

II.Iraultzako beste berrikuntza, energia iturri edo tranformatzaileei dagokie, elektrizitate eta petroleoa, transformadore elektriko eta eztanda motorrekin batera. Ikatzak nagusi izaten jarraitu zuen, lurrunezko turbinei esker. Baina energia berri hauek, abantaila kendu zien ikatzean aberats zien lurraldeei, eta lantegien kokapena zabaltzeko aukera ematen zuen. 1880tik aurrera fabrikak edonon kokatu ahalko ziren. Elektrizitateak argiztapena ere nabariki hobetu zuen, eta elektrizitate eta petroleo industrietan garraio iraultza azkartu zuten (autoa, kamioia, tranbia...).

Aldaketa horiek, giza lanaren produktibitatearen hazkundera ekarriko zuten, eta baita ere produkzioa, eskaintza handitu zuena, kontsumo gizarterako oinarriak jarritz.

BHaren gainbeheraren arrazoiak: orokorrean, BHK, librekanbismoa defendatu zuen, baina herrialde askok, neurri protekzionistak egiten jarraitu zuten, bere industriak babestu nahian batez ere 1973ko krisi ondoren. AEBk eta Alemaniak adibidez. Honela trabak ezartzen zizkien britaniar eta kanpoko produktuei. Industrializazioa berandu ailegatzeak abantailak ere zituen, teknologia frogatua inportatuz, industrializazio prozesuan egindako akatsa ez zirelako errepikatzen. Lehenago finkatutako industria egiturak, zailak ziren berritzea ere, teknologia zaharrek ordezkapena baldintzatzen zutelako. Ingalaterran, Bessemer sistemaren hedakuntza azkarrak, ondorengo berrikuntzak oztopatu zituen, AEB eta Alemaniak labe berriak bereganatzen zituzten bitartean.

Amerikako hazkundera aztertzean, autoreek garatu ziren asmakuntzei atxikitzen die. BHaren nagusigo galtzea argudiatzekotan, David S. Landesek BHko enpresariaren dinamismo falta aipatzen du, ez zekitelako kompetentzia berriei aurre egiten.

II. Industriak ere langile hezien premia gehiago zuen, eta BHan ez zegoen oinarritzko hezkuntza garatu bat Alemanian bezala, non derrigorrezko hezkuntza 1873an eman zen, BH 1850n.

Azkenik, aipatu behar da, natur baliabideak oparagoak zirela Alemanian eta batez ere AEBn.

TAYLORISMOA ETA FORDISMOA:

Enpresaren antolaketan, aldaketak ere nabari egin ziren. Lantegi antolaketan, **TAYLORISMO**, edo lan antolaketa zientifikoa, eta fordismoa edo kate lana. Lanaren antolaketa zientifikoa XX. Mende hasieran gauzatu zen, eta automatizazioaren garapenarekin, kualifikazioaren beharra joan zen. AEBn nagusitu zen, bertan kualifikazio urri eta langile mugimendu ahulak zeudelako, baina ondoren Frantzia, Italia, Alemanian... zabaldu zen.

Ingalaterran XIX. Mende erdian eta AEB bukaeran, mekanizazioak indarra hartu zuen, baina langile kualifikatuen menpekoa zen, ekoizpena eta denbora finkatzeko autonomia edukiz. Taylor amerikarrak, 1881an ikerketari ekin zion, emaitzak 1911n publikatu. Enpresaren ikuspegi mekanista zuen, lantoki eta ekoizpena arrazionalki antolatuz. Pertsonari dagokionez, Taylorren ustez langilearen motibazioak ekonomikoak dira, ondoren langile eta enpresarioaren interesak berdinak dira. Langileari nahi duena emanaz (soldata altua) enpresariak nahi duena lortuko du. Pentsamenduaren oinarria zera da: posible dela langile eta jabeen arteko interesak lotzea. Era berean, Taylorismoak alferkeria aztertzen zuen, eta hau ekiditeko, disziplina arazoei irtenbidea eman zien. Pertsonaren helburua, ahalik eta gutxien nekatuz gehien produzitzea zen.

Bi ondorio hauetatik (alferkeria pertsonaren berezko ezaugarri da/langileen interesak bateragarriak dira), Taylorrek bi ekarpen egin zituen: produktibitate optimorako arauak ezarri, eta ekoizpen harremanak aztertu.

Taylorismoarekin, lanerako denbora minimoak zuzendariaren kontrolpean geratuko ziren. Lanorduko denbora hilak ezabatuz, eta zeregin bakoitzerako mugimendu egokiak diseinatuz, nekea murrizteko. Ondorioz, lanpostua alde aurretik azaldutako zeregin multzo bilakatu zen, eta honi hauek mekanikoki betetzea zegokion. Aldaketa mekanikoaren emaitza bikoitza izango da: ekoizpen prozesua bizkortzea eta mugimendu gutxiagoekin egitea kostu unitarioa murrizteko, eta lana erraztea, modu egokien eta azkarrena topatuz.

Denboraren kontrolak, emaitza hauek ekarri zituen:

- 1-langilearen karga handitzea eta erritmoa intentsifikatu,
- 2-Ikasketa prozesua murriztea,
- 3-langile murriztea eta soldata igoera,

4-Produktibitate eta irabazien handitzea. Espezializazioa dugu Taylorismoaren 2. ekarpen nagusi: programazioa eta exekuzioa bereiziko ziren, aginte lana eta egite lana. Bi langile daude: pentzatzeko dutenak eta egiteko dutenak.

Banaketa honetan, zuzendaria jabetza kontzeptutik bereiztuko da, ordura arte jabea enpresari eta kudeatzaile zenean. Taylorismoarekin, managerraren figura agertuko zen. Planifikazioaz arduratzen diren zuzendariak enpresarien helburu bera dute, eta ekoizpen prozesuaz arduratzen dira. Lantegia eraginkorra izateko analisi zientifiko bat burutuko dute, zereginak arrazionalki aztertu eta diseinatu, inprobabiliorako tartek ezabatuz. Instrukzioak ezartzen ditu, kualifikazio maila, denbora eta produktibitate tasak zehaztuz.

Exekutzaileak diseinatutako prozedimentua beteko du, ekimen eta autonomia garatzeko aukera gabe. Langileak ekoizpen prozesuan ikusle hutsaren funtzioa izango du., eta bakoitzak zeregin bakarra izango du, indibidualizatuz. Taylorismoa interakzio minimoaren eredu dugu, langilea makina bat bihurtuz, kanpoko arauak ezartzen dituenak.

Soldata altuek erakarria, langileak enpresa Tayloristetan sartu ziren, disziplina barnetuz, nagikeria naita uzteko langileak hartuz. Gaudemarren ustez, hola isildu ziren langile erresistentziak.

Printzipio hauek garatuz sortu zen **FORDISMOA** : taylorismoak langileen denbora hilak ezabatu nahi bazituen, fordismoak lanpostuen arteko korrdinazioan dauden denbora hilak ekintzeko ahaleginak egin zituen, ekoizpena automatizatuz. Kateko muntaiaren bidez produktu kantitatea baliabera berberekin handitu ahal zen, eta produktua zen ekoizpen katearen bidez lanpostu batetik bestera mugitzen zena. Kateak, lan erritmoa ezartzen zuen, eta Taylorren kronometroa desagertuz. Taylorismoaren denbora asignatua, katearen bidez inposatua izatera pasa zen.

Fordismoak automatizazio/estandarizazio bidez, kualifikazioa ezabatu zuen. Fordismoan, zereginak berdinak, neurgarriak eta trukagarriak izan behar ziren, beharrezkoa zen lana langilearen nortasunetik banatzea eta arrazionalizatzea edonork egin ahal dezan. Ahala ere espezializatu ei abantailak eskaintzen zizkien.

Fordismoak produktu estandarizatuak ekoizti eta salneurriak jaitzi zituen, alde batetik, langilearen betebeharrak mugatzean honek, trebetasuna lortzen zuelako, eta bestetik eskala ekonomiak lortu zituelako: produkzioak kostu finkoa ekoizpen unitatetan banatzea ahalbideratzen zuen, eta honea unitate kostua gutxitu.

Produktzio mota berri hauek, masa-merkatuaren sorrera gauzatu zuen, kontsumoan oinarritua eta langilea ekoizle-kontsumitzaile bihurtuz.

Fordismoan langilea merkatuan saltzen den produktuaren zati da, eta ondorioz lan baldintzetan gehiago erreparatuko du. Fordek, five dollars day sortu zuen adibidez: honekin, soldata bikoizten zen baldintza batzuk betez. Langileen alde egitea eta erresistentzia isilarazteko erabili zela

Fordismoak, kapitalismoaren aro berri bat islatzen du: kontsumo gizartearen sorrera.

Fordistek bere hornitzaileen aktibitateak integratuko zuten, ekoizpen prozesua konplexuago bilakatuz eta enpresa erraldoiak garatuz. Ahala ere, masa kontsumoa ez zen garatu IIWW bukaera arte

Edonola 73ko depresiotik haurrera, kapitalismo monopolistikoaren ezaugarriak hasiko ziren finkatzen: enpresen handitzeak, monopolio eta oligopolioak lortzeko, konpetentzia murriztuz, enpresa txiki eta ertainen zamarekin batera. Depresioan enpresa asko fusionatu ziren lehia gogorraren aurreran, baina batez ere II. Iraultzako adar berriak, eskala handiagoko enpresak ekarri zituen. S.A.-k nabariagoak egingo ziren, familia enpresen gainera. Orain, S.A. Zabalago horietan, jabeak zeharka kontrolatuko zuen enpresaren martxa, manager-aren irudia agertuz. Industrializaazio hasierako enpresa txikiek, ezin zuten haurrera egin industriaren adar modernoan, non kapital gehiago eskatzen zen, eta enpresen eskala handitzen zen bitartean, fusioan sartutako kopurua handitu zen.

Honen emaitza enpresen kontzentrazio horizontala izan zen. Prozesu honetan bankuak garrantzia eduki zuten, eta kartelaren hedapena eman zen, edo trust edo holding akordioak (enpresen akzioen kontrol bateratua eramateko akordioa).

S.A. Hauek, integrazio horizontala garatzen hasi ziren nagusiki (adar produktibo berdineko enpresei eragiten diena), baina bertikalak ere beraien lekua zuten (lotutako jarduera ekonomiko ezberdinak lotzen dituenak), zeinek baliagarriak ziren baliabideen kostuak murrizteko.

Bankuen papera eta kontrola oso garrantzitsua izan ere, lehen banku mistoekin (Alemanak aintzindari). Hauek antzinako bankuen funtzioak (gordailuak, epe laburreko eragiketak...) eta industria bankuenak (epe luzeko inbertsioak) betetzen zituzten, Frantziako inbertsio bankuak eredu bezala jarritz. Hauek hazteko, beste banku batzuk xurgatu eta kreditu merkatuen monopolio lortzen zuten, kontrol oligopolistikoak ezartzeko.